

EUSKAL ORÍA

Eusko Ikaskuntzaren
V Batzarra

Batzar aundi onen berri ba-dezu, adiskide.

"EL DIA"ko Euskal-Orrian bere xetasun batzuek eman nai nizkitzuke.

Eusko-Ikaskuntza... Batzarra... Bergara...

Orta or iruko ederra; zein baño zein.

Eusko-Ikaskuntza... Euskal-errriari dagozkion jakingai guztia ikasteko Ofiati'n sortu zan Elkarte aipagarría. Oraindik gaztea dalarik, makina bat lan egin du gure Erriaren alde! Euskal-gizatasuna jaso nai luke gora ta gora ta arazo onetan geintxuena Eusko-Ikaskuntzari zor diogula esan genezake. Txuriak eta gorriak, arantzkoak eta emengoak, danak Eusko-Ikaskuntzan bildu ta besarkatzen dira. Guzten Ama aundia da bera. Eusko-Ikaskuntza sortu zuten Jaun agurgarriei danok gure esker-ona agertu bearrean arkitzen gera.

Batzarra... Eusko-Ikaskuntzak V

Batzarra dagi aruten. Ofiati'n egin zuan lenengoa: Batzar gogoangarría ura!

Emen sortu zan "Eusko-Ikaskuntza"-Elkarlea. Erregeren aurrean Elortza Jaun ixtetua eta gafierakoak egin-dako itzaldia etzañiguztua.

Iruña'n, Gernika'n, Gasteiz'zen. Ofiati'n azaldu zan eguzkia gora ta gora igo zan. Euskal-Unibertsidadea ta

beste azkatasun-gai sakonak erabillituzten Batzar aietan. Azkatasun oilek noizbait iritziko ditugu. Aurtentagian (?).

Bergara... Erri atsegina, uri polita. Euskal-usal gozoa dario baitzaz giztietatik. Sal-eros-errexten euskaraz izenak; leio ta balkoletan euskerazko goraka ta ongi etorriak; erriko jenderik geienen ezpafetan euskera naro, ederra... Errian sartu nitzaneko, leio batean nere begiak irakurgau jo zuten: "Ikastolan euskera nai degu", eta beste au: "Euskera, beti erri onetako izkera", eta beste au: "Zer egin ez dakizu zure Aberriaren alde? Itz egin zazu Euskera", eta onelako beste milla ta milla edonon, etxe guztietako leio ta balkoletan. Eusko-Ikaskuntzak exer-leku egokia aukeratu du bere V

Batzar Nagusirako.

Aurtengo Batzarraren gai berexia Eusko-Erri-Ertia da. Beste euskal-azkatasun-gai batzuek ere ikuak dira.

Igande goizean asiera eman zi-tzaion. Ni Bergara'rak eldu nitzaneko Meza Nagusia amaitu zan.

Amabitau Udal-errexen billera. Erregeren ordezkoak mai-buruan.

Eusko-Ikaskuntzak Lendakari, Elortza Jaun Agurgarriak ongi etorria dagigu. Batzarraren asmoak eta itzadopenak azaltzen ditu.

Lau Aldundietako Buruzagi Argiak dagite gero itza. Bero, gartsu, adorez lauak.

Ondoren Gobernuaren ordezko Santalo argia mintzatu da.

Erregeren ordezkoak, Erregein zarra oroinmena daskarigü burura. Asko maite zuan Euskalerrria.

Eta Erregeren izenean ideki zituan Batzarra eta egun oietako era-tu diran Erakustegiak.

Agur, irakurle. Bigar gelago.

M.

Euskaltzaleak

GURE ARPIDEA

Lendik ...	715
Azpeiti'tik bialdua ...	200
Mujika'tar Gotzon ...	5

Gaurdaño ...	920
--------------	-----

Tolosako Jai Aundia

Egun alai ta pozkarria izandu zan jaun eta igandeakoa katoliko guztiontzat eta batez ere Tolosako Elizbarrutikoentzat.

Egun zoragarrigorik ez det nik ezagutu. Goizeko Jaunartze ederrak, meza nagusi ospetsua ta aitzentil arratsaldeko prozesio ura ikusita esan genezake euskaldunen biotzeta ez dala oraindik itzali beren Jaungolkorenganako maitetasun sutsua.

Tolosako kaletan ainbeste jende ez det nik befiere ezagutu. Zumardi-aundiko zugazpetan bilduta eta elkartuta ez det erabat orrenbeste euskaldun katoliko befiere ikusi.

Gure Obispo Jaun maitearen aurrean, Goiko gure Jaun altsua gurtzen, goratzeta eta beren biotzeko Jaun eta Jabe aitortzen ez det igan-de arte alkarrekin orrenbeste Kris-to'tar ikusi.

Euskal-errri, Jaunari eskerrak, oraindik sinismenean sendo dago. Potozu gaitezen eta aurrera ere orrelaxe irau dezagun, Kristo gure Jauna, lotsatu gabe, Erregetzaz aitortzen.

A.

Beneficien pozgarria

"Lau-Uxo"ren irizi-deia ontzat artuta, lenbiziko batzarra izan zuten igandean gure txoko maitean andeñu idiazleak.

Zarautz'en aldi onetan, (arrotzez beterik arkitzen dalarik), naiko bu-rrunbada ta destitxa bida; baña "Uxo"k bere egaldi batean edo (goiti dana ikusten bai da), askartxo billatu izan bear zuan toki bakar, ixil, atsegingarri bat. Eta bertan, Luzeak j. maxu zuteia indar berritu edo dira euskera zabalkundearen alde lan egitearen.

Berri txikia, utsa izango da bear bida norbaitentzat, baña guretzat aundia, benetan pozgarria.

Aldi guztietan, askok ez uste izan arren, emakumeak "papel" garrantzi aundindunak egin oi dituzte, ez bear bida bere jakintasun bidez, baña bai bere maitasun indarrez.

¿Nork esan zenbat lezaken maitasun indarrak? Guztia ez balezake ere, geina bai beintzat. Emakumeak indar orren bidez, ¿zenbat lan eder, aintzagarri egiten ez du gaur dan egunian ere? Zifismenaren alde dala, gaixoen alde dala, beartzuan alde dala...

¿Nork goratu lezake bear dan bezia amaren eginkizuna, batez ere? Eginizkun aundiagorik, ederragorik ba ote da?

Emendik aterako degu argi asko zenbat eta zenbat egin lezaken gure euskera maitaren alde.

Nai ta naiezku da: emakumea euskeltzaletu bear da alperrikauak izan ez ditezen gizon aberkoi-jakin-tzuen lan geienak. Emakumeak izan bear du bere laguntzallerik onena. Gaurko neskatal euskeltzaileak biariko ama euskeltzaileak dira, eurak beren semetxoz biotzeta ereingo duten euskeltzaletasun azia; beranganki ikasiko dute euskera erabilten eta maitatzen; eurak egingo dituzte beren onbidetasun eta maitetasuna kin euskaldun zintzoa.

Berri txikia, utsa izango da bear bida batzuentzat andereñu euskeldazien lenbiziko batzarra; baña guretzat aundia, benetan pozgarria.

MALEN

Zarautz'tik.

LEZO

(Jarralpenea).

Euskal jaiari laguntzeko. — Uron-tzia uartzea, txikia agertu oi da. Ta urrenago ta aundiago ikusten degun bezela, Euskerari laguntzeko iriki degun arpidea ere gizenduko zala-koan geunden. Pitinka asi ta gero ta geialo, pillo bat egin arte, jendeak erantzuneko zigulakoan, alegia. Tira, ba, zerbait emateko gogoa de-zutenok, eman bildurrik gabe mu-tillak!

Lengo erreskadaz gafiera ona emen artu ditugunak:

Laurileko

Salaberria'tar Anastasio'k ... 5'00
Pagola'tar Bonifazio'k ... 5'00
Broste'tar Atanasio'k ... 5'00
Plikabea'tar Joxe'k ... 1'00
Garmendia'tar Jose Luis'ek ... 1'50
Gezala'tar Urbana'k ... 1'50
Lengoak ... 8'00
Guztira ... 27'00

Euskera maite ta berari laguntza eskeñi nai diozutenak, oartu aste ontan bakarrik egongo dala arpide au irikita.

ANASTASIO

Ordizia

Agorrillaren 7an Bergara'rak joateko, beribilla jartzen du Azurmendi'tar Joxe Luis'ek, Urdateta karrikan. Asi gera juan bear degunzen ematen. Beste ifork bañio merkiago eramango omen gaitu. Aditzera eman beraz, Ormaiztegi, Zaldibi, Bea-sain eta abarren. Olaberrikit juango da "Zeleta", Itsasondo'tik "Muru-mendi".

Jo Bergara'rak denok, an toki agirian saio bat egin bear diaugu ta. Euskaltzaleak al dan goiena jartzen. Ez da naikoa ardandegietan gau-erdian marruka aritzea.

Egun zoragarri ori ikusteko su goorra dago alde guztieta, eta esan bezela al dan azkarren aditzera eman Joan bear dezutenok. Beribillean 20 eramango omen ditu. Badakizute gareja nun daukan.

Bergara'rak joateko gaude irrikiten, Euskera azkatuta bai degu ikusten. Itsasondo'tik Murumendi ta Olaberrikit Zeleta, olerkari ta izlari onez beribil dena beteta.

Besteren gauzak ezer ez degu eskatzen, bakoitzari beria bakarrik opatzan. Eusko semiak ez badu au onto patzen, berak daukan odola garbi du ukatzen. Asi ba ernaitzen, guztiok anaizten, biotzak alaitzen, garaillari gaitzen, Ama estuntzapatik degun azkatzan. Estuntza — Katedra.

ERAUSKIN ERROTARI

"Sanctificetur Nomen tuum"

— 1 —

Zu izan zaitez Jaun ta Jabe guziona, Jesusen Biotz maite eta guztiz ona;

Ainbeste dezu, bida, maitatu gizona!

Zugan arkitu nai det nere zoriona.

— 2 —

Munduko aberats ta gizon jakintsuak, Aita Saindu ta Gotzal, Apaiz ta Prailiak; "Kixkaltzea" nai nuke Jesus! Zure suak,

Zu ezautzeko ongi txit, mundu guziak.

— 3 —

Ezagutu ta onetsi, bai tere maitatu, Jaunak Bere "Izena" egitea nai du;

bañan gure "anai" asko dirade gelditu, ai! Jaunaren Izena ez dutela aditu.

— 4 —

Danok aizi nai gaitu Bere Biotzean, Danok artu nai gaitu betiko Zeruan;

Bere Izena nai du zabaldu Amerikan, Europa, Ozeanian, Afrika ta Asian.

— 5 —

Munduko toki askotan "anai" asko daude ai! Jaunaren Izena ezagutu gabe;

ayek ere Zeruan sartu nai bai dute, ayek bezela banitz!

— 6 —

Oyuka! ari dira iigaixuak!! urrundik; ayengana joateko "Gurutzea" arturik:

bestenaz ayentzako ez dala Zerurik, ez dutelako artu Batayo Santurik.

— 7 —

Zenbat aurtxo dirade ugaldetaz terran, arrapatzetan utziak Indian ta Txinan!!;

ori digute esaten beren gutunetan, Mixiolarri on oyek! negarra begitan!

VIDA RELIGIOSA

Santos de hoy:

Ss. Esteban, r.; Elpidio, ob.; Antoniín, Máxima, Zenón, Concordio, Teodoro, Evodio, Hermógenes, Calixto. Diomedes, Julián, Felipe, Eutiquiano, mrs.

Santos de mañana:

Nuestra Señora Madre del Pastor Divino.— Ss. Sandalio, Febe, Basilia, Serapia, Eufemia, Dorotea, Tecla, Erasmo vírgenes, Pedro, Francisco de Jesús, Bb. Antonio Isidro S. J., y compas. mrs.

SAN ESTEBAN, REY Y CONF.

Descendiente de los fieros y terribles invasores, conocidos con el nombre de Hunos, Esteban fué escogido por Dios para traer a sus vasallos a Cristo y a su Vicario.

El nombre de Esteban le fué dado en el bautismo, porque su madre tuvo una visión del Santo mártir Esteban, el cual le predijo, que habría de convertir a Hungría, cuyo primer rey fué, después que el Papa hizo de aquél país un reino. Habiendo casado con la hermana del emperador S. Enrique, rodeóse para gobernar acertadamente sus estados, de hombres de acrisolada virtud y prudencia. Pasaba noches enteras sumido en la contemplación de las cosas del cielo; practicaba las más rudas austeridades, y secundado por la reina su esposa, daba grandes limosnas a las viudas, a los huérfanos y a las iglesias.

Bien mereció por su ardoroso celo por la expansión de la fe el título de "Rey apostólico" o de "Apóstol de Hungría," y que la santa Se-

ñoridad le diera la palabla el señor Vicedirector.

Hoy martes a las ocho y cuarto de la noche tendrá lugar como de ordinario la conferencia semanal que esta juventud organiza para las congregantes de la sección mayor y en la que les dirigirá la palabra el señor Vicedirector.

Se suplica desde estas líneas la más nutritiva y puntual asistencia.

SORDERA Y ZUMBIDOS

VENCIDOS CON EXITO POR EL METODO MAS MODERNO

Nada de aparatos molestos - ni inyecciones - sin dolor - ni operación

Por el ANTI-ACOUSIE DE PARIS - 16, Rue du Pont-aux-Choux

Unico en Francia que aplica este método

RECEPCION de 9 a 5 en Hendaya, Hotel de la Paix, el martes 2, miércoles 3 y jueves 4 de Septiembre.

Contestando en forma colectiva a las numerosas cartas que le llegan, no podrá permanecer en dichas poblaciones de